

Maiatzaren Lehena

1º de Mayo

2014

Adolfo Muñoz, Txiki



ITXAROPENA GALTZEA NAHI DUTE

ESANAK ESAN, HONEK LUZE JOKO DU

Kontrakoa sinestea nahi badute ere, krisiak eta bere ondorioek luze joko dute oraindik. Politikak ez dira aldatzen; gobernu guztiek erreforma estrukturalak ezartzen dituzte, eta horrek hankaz gora jartzen ditu aberastasuna banatzeko tresnak. Ondorioak begibistakoak dira: desberdintasuna gero eta handiagoa da; pobrezia zabaltzen ari da, eta lan munduan, soldatak asko murrizten ari direla, lanak gizatasuna galtzen du; esplotazioa, alegia. Lana izanda ere, gero eta jende gehiago pobrea da. Horixe eskatzen du Enpresarioen Zirkuloak, bere lehendakari den Oriol anderearen bidez (frankismo garaiko oligarkian bere familia izan zen ezagunenetakoa): esklabuak nahi dituzte. Kontua da... zenbat denbora beharko du gobernuak arrazoia emateko?

“Zulotik ateratzen ari gara”, diote. Bost urte daramate lelo berarekin. Baina arazoa da ez dela egia; gure jendeak ez duela somatzen. Kontrakoa gertatzen da, gure jendea gero eta okerrago dago. Ikusi besterik ez dago langabeziari buruzko azken estatistika, etengabe goranzko joera adierazten duena. Gobernuak ez dira gauza ezetz esateko benetan agintzen duenari, kapitalari, eta propaganda besterik ez dute egiten.

Ezin da ulertu zer gertatzen den ez bada kontutan izaten negozioen eta politikaren arteko lotura estua. Izan ere, bat eginda daude. Halaber, hau ulertzeko ezinbestekoa da barne-eliteen lana (Espainian eta Hego Euskal Herrian); elite hauek lanean ari dira kapitalari negozioa irekitzeko. Elite nazionalak kontrolpean izatea erabakigarria bihurtu da; horiek gabe ezinezkoa da. Botere ekonomikoak egundoko tresnak ditu alderdien, gobernuen eta sindikatuen gailurra kontrolatzeko. Kupula kontrolatuz gero, guztia dago menpean. Horregatik dago demokrazia jota. Demokrazia honetan gobernu guztiak PPren arrastoan sartzen dira; ustelkeriak jandako alderdi horren arrastoan.

GAUZA ASKO DAGO AIPATZEKO

Gai askoren artean batzuk aukeratu ditugu: Salatzea aurrekontu- eta zerga-politika hauek bateraezinak direla enpleguarekin eta solidaritatearekin; nabarmentzea gertatzen ari den inboluzio antidemokratikoa eta erreferentzia politiko berrien beharra; gobernuen eta patronalen helburua soldatak jaistea dela; salatzea KUTXABANK pribatizatzeko asmoa; agerian uztea euskal erakundeek ez daukatela politika industrialik; ez dago elkarriketa sozialik, ezta horren antzeko ezer ere; azkenik, gako organizatibo batzuk, mugimendu sindikalak azken 35 urteetako erronkarik gaitzenari erantzun behar baitio. Horregatik aukeratu dugu Maiatzaren Leheneko aldarrikapena, “ANTOLAKUNTZA ETA BORROKA”: horrek jasotzen ditu mugimendu sindikalak dituen eginkizun nagusiak.

1.- AURREKONTU-DIZIPLINA ETA FISKALITATEA, ENPLEGUAREKIN ETA SOLIDARITATEAREKIN KONTRAJARRITA

Zer egiten dute gobernuak benetan? Bi erabaki nagusi hartu dituzte: gastuaren aldetik lehentasuna defizita bete eta zorra ordaintzea izango da; sarreraren aldetik, berriz Europako zerga-politikarik injustuena mantentzea; aurrekontuak parlamentuetan aurrera ateratzea ere ez da beharrezko.

Izan ere, Nafarroan agintzen dutenek duela bi urtez geroztik ez dute lortu beren aurrekontuak parlamentuan onartzerik, baina murrizketak gorabehera, ez da ezer gertatzen. Defizita betetzen da, gero eta handiagoa den zorra ordaintzen dute, eta helburu horiek betetzeko ihes-balbula ere badaukate, murrizketa sozialak. EAEn gauza berbera gertatzen da. Bildutako dirua jaisten bada eta zorraren interesak puzten badira, ondorioa begibistakoa da: gastu soziala gutxitu beharra dago, erabaki dutelako defizita eta zorraren ordaina sakratuak direla.

Bada, itxuraz politikan liskarra nagusi den arren, Urkulluk eta Barcinak Rajoyrekin hitzartu dute hori izango dela sistema. Gure herriko errealitate politikoa are okerragoa da. Madrilen Montororekin urtarilaren 14an Kontzertu Ekonomikoa berritzeko akordioa Gasteizko gobernuak eta hiru foru-aldundiek sinatu zuten. Akordioan euskal administrazioek aurrekontu-diziplinaren oinarriak ontzat eman zituzten. Hiru Aldundiek, baita Gipuzkoak ere.

Bestalde, joan den irailean EAJk, PSEk eta PPk erabaki zuten erreforma fiskalak ez dakar aurrekoaren aldean inongo aldaketarik; hura bezain bidegabeta da, eta diru bilketari buruz ez du ia eraginik.

Beraz, erabaki dute datozen urteetan defizita murrizten jarraitu beharra dagoela (hau Rajoyrekin eta Troikarekin adostuta dago), eta zorra ordaindu egin behar dela, berarekin espekulatzen duen bankuen pozerako (Kutxabank barne). Ondorioa da murrizte politikak bere hortan dirauela.

Nola sinetsiko diegu politika honekin enplegua eta solidaritatea direla beren lehentasunak? Erabakitzen diren enplegu-planak propaganda hutsa dira. Enpresei laguntzak ematen zaizkie kontratu prekarioak finantzatzeko, baina politika honen emaitza ez da enplegu berri bat bera ere.

Administrazioek zuzeneko enplegua suntsitzen dute eta, gainera, lehiaketa publikoetan prezioak murrizten dituzte, %50eko jaitsierak ezarriaz; honek lan-baldintzetan eragin larria du (hitzarmenak ez dira betetzen), baita galtzen den enpleguan ere. Langabezia ez da inola ere lehentasuna; eurentzat aitzakia bihurtzen da lan-baldintzak okertzeko eta diziplinatzeko tresna gisa erabiltzen dute.

Ez dagoela alternatibarik diote. Euskal ogasunek Europako batez besteko presio fiskala ezarriko balute, urtean 6.000 milioi euro gehiago bilduko litzateke. Zergatik ez dute egiten?

Zergatik ez da zorraren ordaina auzitan jartzen? EAEko zorra 2013ko 370 milioitik 2014ko 800 milioira iritsi da, eta diotenez, 1.000tik gora izango dira 2015ean. Zorraren ordaina, gobernuak txintik esan gabe onartzen dutena, tresna eraginkorra bihurtu da bi gauzetarako: gobernuak makurrarazteko politika antisozialak ezartzera, eta bankuei, hots, egoera honetara ekarri gaituzten lotsagabeei, milaka eta milaka milioi transferitzeko. Zorraren zati handi bat gaur ez da bideratzen gastu soziala finantzatzera. Zorraren puska handi bat arbuia egin beharko litzateke, gobernuak gizarte-kohesioa aintzat hartuko balute. Zergatik ez da zorraren auditoritza publiko bat egiten?

TROIKA Europan erabiltzen ari da NMFk eta Munduko Bankuak Latinoamerikan ezarri zituzten eskema berdinak. Politika horiek, han eta hemen, langabezia, txirotasuna, desberdintasuna gehitzea eta demokraziaren galbidea eragin dute.

Lotsa eragiten du ikusteak Gasteizko gobernuak nola saltzen duen Udaletara bideratuko dituen 16 milioi euroren kopurua, zertarako eta kontratu prekarioak egin ditzaten. Zer dira 16 milioi, zorra medio bankuei ordaintzen dizkiegun 800 milioien aldean?

Nafarroan ere antzeko argazkia daukagu. 3.101 milioiko zorra, megalomaniak jotako gobernu baten gastuak ordaintzeko; bere politikarekin gobernuak gizarte nafarra gutxiengo baten alde hipotekatu du.

Defizitaren eta zorraren diziplinari men eginez gero eta zerga-politikan 180 graduako aldaketa egitea ukatzen bada, politikan ez dago alternatibarik; ez dago aldaketa politiko eta soziala gauzatzerik.

2.- INBOLUZIO ANTIDEMOKRATIKOA ETA ERREFERENTZIA POLITIKO BERRIEN BEHARRA

Espainia gaur eredu antisozial eta inbolutiboa da, ikuspuntu politiko zein sozialetik. Krisiaz baliatzen ari dira autogobernuaren osagaiak desegiteko, osagai hauek ezinbesteko direlarik politika sozialagoa egiteko, PPren politikatik desberdintzeko.

Zergatik ukatzen du Eusko Jaurlaritzak PPren Gobernuaren inboluzioaren ebidentzia? Zergatik tematzen dira esaten estatuarekiko bilateralitasuna ondo doala, nabarmena denean politikako esparru guztietan hori ez dela horrela? Espainiar estatuak sistemaz ukatzen du gure herriaren nortasuna autodeterminazio eskubidea aitortuz aintzat hartzeko aukera; eredu sozial ultraliberal bat inposatzen du, eta erregenerazio demokratikorako aukera orori muzin egiten dio. Bestalde, estatuaren erabateko ukapen hori zentzuz kudeatuta aukera bihur liteke.

Eskozian bide demokratikoa urratzen hasi dira, autodeterminazio eskubidearen aitopenearekin. Katalunian asmatu dute ondorio politikoak ateratzen erakunde katalanek egindako proposamen politikoei estatuak adierazi dien mespretxua ikusita. Prozesu horietan gizartearen eginkizuna funtsezkoa da, sarritan elite politikoek nahiko luketeena baino handiagoa.

ELAri galdera batzuk datozkio burura: Zergatik ez da Euskal Herrian estatuaren mespretxu hori bera (espainiar Gorteetan Estatutu Politikoa arbuiatu zuten) bestelako erreferentzia politiko bihurtzen? Zer dela eta itzultzen da Legebiltzarreko batzorde batera, jakinik zer nolako emaitza izango duen? ELAren iritziz ezinbestekoa da erreferentzia politiko berriei heltzea, Euskal Herria nazio bat dela eta bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea zor zaiola bat gatozenon artean.

Hain zuzen, ELAk oso ongi irizten dio Gure Esku Dago ekimenari, eta bere militante eta afiliatuei dei egiten die datorren ekainaren 8an Durango eta Iruñea batuko dituen giza-katean parte har dezaten.

3.- SOLDATEN JAITSIERA

Ahalegin handiak eginez, ELA lantzen ari den negoziazio kolektibo erak erakusten du emaitza positiboak egingarriak direla, erreformak hor egonda ere. Bai sektore mailan, bai enpresetan.

Sektoreetan erreformaren aurkako klausulak hitzartu ditugu, eta KPlari lotutako igoerak. Ekintza sindikalari esker izan da, batzutan bakarrik, beste sindikatuen laguntzarik gabe, baita sektoreetan ere. Gipuzkoa eta Bizkaiko adinekoen egoitzak, Eskola-Garraioa, Bizkaiko Ehungintza Merkataritza, Gasolindegia... 300dik gora enpresa-hitzarmen sinatu dugu. Enpresa mailako hitzarmen hauek dira erreformari eta patronalak ezarritako blokeoari aurre egiteko erantzun sindikalik egokiena, eta agerian uzten dute posible dela, antolatuz eta borrokatuz, lan-baldintza duinak defenditzea.

ELAk garrantzi handiko gauza bat egiaztatu du: negoziazio sektorialean erreformaren aurkako klausularik ez badago, enpresarioaren esku geratzen da adostutakoa betetzeko aukera. Klausula hauekin ere, enpresa-hitzarmen batek aplikatzeko lehentasuna dauka, sektore azpitik bada ere. Hots, sektorea honez gero ez da derrigor bete beharreko gutxieneko zorua. Hori dio Rajoyren erreformak, eta horren aurka egin genuen greba orokor bat.

Horiek dira erreformaren edukiak: ultraaktibitatearen amaiera, enpresaren lehentasuna sektorearekiko, inaplikazioak, arbitrajeak, 41. artikulua araberako lan-baldintzen funtsezko alaketaren aplikazioa... Hau guztia egoera latza delarik: batetik, sindikaturik eta

antolakuntzarik gabe, hitzarmena ez da aplikatzen, eta bestetik, enpresarioek langabeziaren presiopean dauden beharginak topatzen dituzte, hitzarmenak dioena baino merkeago lan egiteko prest. Hau gero eta sarriago ari da gertatzen.

Esplotazioa legezkoa da, eta ez denean, Agintaritza Laboralak utzi egiten du. Gobernuak patronala goraipatzen dute, gau eta egun. Ugazabekin duten aliantzak ondorio konkretuak ditu: etekinak bermatzeko dauden oztopoak kentzen dihardute. Horregatik, gobernuak eta patronala bat datoz ELAk traba egiten diela beren interesei. Egia da, lanaren gizatasuna deuseztatu nahi dutenentzako oztopo gara.

Esaterako, herrilanean zer dela eta ez dira betetzen sinatutako hitzarmenak? Zergatik ari dira langile batzuk orduko 3,2 euro irabazten? Edo, bestela esanda, hitzarmen sektorial ia guztiak sinatuta egon arren, zergatik jausi dira soldatak areago Nafarroan EAEn baino? Hala da, sinatutako hitzarmen sektorialak daude, baina ez dira betetzen. Esan genuen Rajoyren erreforma salatzeke greba orokorra egiterakoan: Negoziazio kolektiboa hondatu digute eta sindikatuok ezin dugu jokatu ezer gertatu ez bailitzan.

Patronala legeaz fio da bakarrik. Patronalak, legea eta xantaia bere esku izanik, besterik ez du behar. Erreformak, eurek dioten moduan, aginte-postuan kokatu ditu.

Halaber, patronalak uste osoa du Auzitegi Gorenean. Aste honetan jakin dugu Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak bi epaile berri izendatu dituela Gorenerako, biak ere zeharo kontserbadoreak. Eskuinak ez du denbora alferrik galtzen. Auzitegi Gorenean berebiziko lehia dago erreforma laboralaren interpretazioari buruz, eta PP beharrezko aldaketak egiten ari da bermatzeko egoitza judizialean ere CEOEn nahiak betetzeko inolako oztoporik ez dela izango. Honi Espainian “botere judizialaren independentzia” deitzen diote. Guk diogu justiziarik ez dagoela, eta Montesquieu zenak ikusiko balu bere buruaz beste egingo lukeela.

Epaile batek erabaki du Bizkaidendak-ek ez daukala legimitaterik eragin orokorreko hitzarmen bat sinatzeko: Bere ordezkaritza maila ez da nahikoa. Confebaskek sartu zuen hitzarmena argitaratzearen aurkako errekurtsoa. Haatik, paradoxa da hitzarmen horren aurka jo duen patronalak berak, Cecobik, ehungintzaren merkataritzan Bizkaidendak-ek baino ordezkaritza maila apalagoa duela. Negoziazio kolektiboa blokeatzeaz gainera, eduki duinak lortzea eragozteko, Confebaskek auzitara joaz betoa ezarri nahi die eskutatik alde egiten dioten hitzarmenei. Harrokeriaz jokutzen dute. Erabaki dute epaileek finkatuko dutela patronalaren ordezkaritza. Confebaskek negoziazio kolektiboa hankaz gora jartzea erabaki du. Badakite, guk dakigun bezala, inongo patronalak ezin duela behar besteko ordezkaritza egiaztatu eragin orokorreko hitzarmenak sinatzeko. Eurek ere ez. ELAk ez du onartuko oparitutako ordezkaritza duen patronal harro, hantuste eta honek hori egiterik. Ez dugu ontzat emango gure militanteen lan saiatuaren ondorioz lortu diren fruitu sindikalei betoa ezartzerik. Confebaskek ere ez dauka beste patronalei eskatzen die ordezkaritza mailarik, eta jauntxo feudalen moduan jokatu nahi du. Bere garaipena pirrikoa izan da.

Epaiaren ondorioz, ELAk eta Bizkaidendak-ek sinatutako hitzarmena eragin mugatukoa izango da. Horrek hainbat galdera egitera garamatza: Zein patronalek dauka Merkataritzan ordezkaritza maila nahikoa? Non egiaztatzen da Confebask osatzen duten patronalen ordezkaritza? Nola egiaztatzen du Jaurlaritzak patronalaren ordezkaritza bere esku hainbeste diru jartzeko? Bada, izan bitez epaileak ugazaben ordezkaritza finkatzen dutenak. Baita euren ere.

SOLDATA eta ENPLEGUAREN aldeko kanpaina jorratzen ari gara. Aurre egin nahi diogu pentsamolde hegemoniko interesatu bati, soldatak jaitzita enplegua bermatzen dela dioen pentsamolde horri. ELAk ukatu egiten du hori: erabat faltsua da. Datu ofizialek diote soldatak beherantz doazela, eta etekinak gorantz. Datu ofizialek diote hemen dagoela Europako produktibitate handiena. Datu ofizialek diote besteentzat soldata jaitziera ezarri nahi duten

pribilegiatu horiek beren buruari milioitan ordaintzen dizkietela soldata eta pentsioak. Euren errezetak besteentzat baino ez dira. Arrisku soziala dira.

ELAk badu soldatak defenditzeko arrazoirik:

- Ekonomia erreala eta enpleguaren alde egitea. Kapitalaren irabazia mugatu ahala ekonomia erreala tartea irabazten dio ekonomia espekulatiboari.
- Pentsioak defenditzea. Soldatak kotizazio sozialak dira, eta ordainsariekin batera hauek jaitsiz gero, pentsioak txikiagoak izango dira.
- Zerbitzu publikoak, osasungintza, hezkuntza, gizarte-prestazioak, etab. bermatzea. Soldatak zerga bihurtzen dira. Egoera honetan lana galtzea loteria gaiztoa delarik... nork ukatuko du gizarteko kohesioa soldaten bidez defenditzeko aukera? ELAk ez.

Soldaten jaitsiera onartzea gizartea txirotzeko joerari men egitea da, eta ELAk ez du hori egingo.

Klase politikoaren zati handienak diskurtso patronal honekin bat egiten du eta, gainera, beren ardura esparruetan negoziazio kolektiboa deuseztu du, aurrekontu publikoen menpeko langileen artean soldata jaitsiera nabarmena lortzeko. Negoziazio kolektiboa defenditzeko modu ederra!

4.- KUTXABANKEN PRIBATIZAZIOA ETA POLITIKA INDUSTRIALIK EZA

Nafarroan CAN hustu dute, artelanak ere eramateraino. CAN pribatizatu eta Caixabank bihurtu da. Eta bere zuzendaritza patronatuan enpresa multinazional handiak daude ordezkatzuta, baita munduko hirugarren gizonik aberatsena ere. Euskal politikari batzuk horri “errotze katalana” esaten diote. Lotsagabea da hori.

ELAk mobilizazio agenda bat garatu nahi du pribatizazioaren aurka dauden sindikatu eta mugimendu sozialekin. Ahal den guztia egin behar dugu erabaki hori gauza ez dadin.

Kutxabank pribatizatu nahi dutenek zein herri-proiektu dute? Zein herri-proiektu dute kapital pribatuari gure aurrezkiekin espekulatzeke aukera eman nahi diotenek? Horien egitasmoa kapitalari atea irekitzea da. Hori esan nahi du Kutxabank pribatu bihurtzeak. Pribatizazioa euskal ekonomia errealaren beharrianen aurka emandako estatu-kolpe bat da; urte askoan hartu den erabaki politikorik larriena. Hain zuzen Euskal Herrian hartutako erabakia.

“Behartuta gaude”; gezur tzar hau hamaika bider errepikatu dute: Inork ez du pribatizatzeraz derrigortzen. “Betebeharra” aipatzen duten berberak adosten dituzte PPrekin “behartuta daudela” esateko aitzakiatzat baliatzen dituzten legeak. Honek ez dauka ez hanka, ez bururik. PPK eman du azalpenik garbiena: “Bankarizazioa erabaki zen unetik beretik bagenekien helburua kutxak pribatizatzea zela”. Banco Santanderreko buru den Botin berak esan zuen duela bost urte: “Kutxak deuseztu beharreko anomalia bat dira”. Horretan ari dira: Banco Santander eta BBVAren interesen mesedetan lanean, iruzurra eta manipulazioa nagusi izan den prozesu batean.

EAJ 2012ko urrian VITALEko hauteskundeetara aurkeztu zen; VITAL AURRERA bere plataformak esaten zuenez, bere apustua zen “Kutxabankeko akziodun bakar gisa hiru euskal kutxak mantentzea”. Esan zuten, halaber, beharrezkoa zela Kutxabank babestea “presio politiko saihestezinetatik, zeinen bidez saiaturiko diren espainiar finantza-sistema babesteko hazkunde abenturetan sar dadin...”. Hala esan zuten.

BILDUK bankarizazio akordioa azaltzeko argudiatu zuen, bete ez diren beste puntu batzuren artean, euskal banku publiko bat bermatzen zela eta pribatizatzeke aukera galarazten zela. Akordioa “arduraz jokatzearren” egin omen zuten. Akordioa ez zen jarrera laño baten ondorio izan.

PSE-EEK pribatizatzearen alde hartu duen aldeko jarrerak, berriz, prezio aski merkea izan du: bi Administrazio-Kontseilutan eserleku bana, bat Kutxabanken eta bestea, CAFen. Penagarria, politika zertan den. Honek erakusten du, zoritxarrez, klase politikoa noraino dagoen harrapatuta.

Ez dugu administrazio-kontseiluetan edo fundazio baten patronatuan dagokigun ordezkartasun hitz egin nahi; gure herriak behar duen finantza ereduak kezkatzen gaitu. Hain zuzen, honi dagokionez alderdi politiko bakoitzaren posizioak juzkatzeko ona litzateke jakitea zenbateko zorpetzea duten Kutxabank berarekin. Europar Kontseiluaren Greco txostenak zioenez, espainiar Estatuan ohikoa da bankuek alderdien zorrak barkatzea. Ez dakigu honek zenbateko eragina duen Kutxabanken; baina ziur gaude erakunde batzuren hainbat erabakiren azalpena ere finantza-autonomia ezarekin lotuta dagoela. Orain, gobernuek gardentasuna hainbeste goraipatzen dutenez, aski dute hortik hastea.

ELAk nahi du euskal gizarteak zentzu kritikoa izatea, injustizien aurrean axolagabe geratuko ez dena. Eurak, ordea, erabakiak hartzeko desinformazioa, manipulazioa eta gezurra darabilte. Informatuta dagoen gizarte batek boterea mugatu egiten du. Informatutako gizarte batek badu irizpiderik erabakitzeko zerbait onartezina ote den edo ez. ELAk bere esku dagoena egingo du informazio alternatiboa herritarrengana irits dadin, batik bat langile-klasearengana.

ELAk kanpaina bat egingo du komunikabide askok, esate baterako EITBk, egiten ez dutena egiteko: Informazioa hedatu, pribatizazioak dituen alternatibei buruz eta pribatizatzeak lituzkeen ondorioez.

- Zer nahi dugu geure aurrezkiekin gertatzea: nazioarteko monopoly-an espekulatzeke erabiltzea, ala gure ekonomia errealearen kreditu beharizanak asetzeko izatea?
- Azalduko dugu Alemanian ez dituztela aurrezki-kutxak ukitu; hemen ez bezala, haien alde daudela eskuina, ezkerria eta patronala bera ere. Nola liteke Confedebek esatea euskal enpresei kreditua lehiakide europarrei baino %2 garestiago ateratzen zaiela? Salatzea enpresei dirua utzi ordez bankuek zor publikora bideratzen dutela... eta Kutxabank pribatizatzeke erabakia babestea? Zein da jarrera horren arrazoia? Argi dago... bankuak patronaleko kide direlako eta patronalak finantza-botereen tirania ontzat ematen duelako.

Asko dago jokoan. Guk antolatu egingo dugu horren aurkako jarrera soziala.

Beste galdera bat: Kutxabank pribatizatzea elkarriketa sozialaren eginkizuna al da? CCOOontzat bai; hauentzat elkarriketa sozialeko gai sistemak nahi duen edozer izan daiteke. Bankarizazioaren alde agertu ziren, eta atzera ere bozkatuko dute euskal kutxen pribatizazioaren alde.

5.- EZ DAGO ELKARRIZKETA SOZIALIK. SINDIKATUENTZAKO KAIOLA BAT DA.

Honez gero onartezina da agintariren batek gatazka sozialari egozteko ekonomiaren arazoak. Eurekin bilera pribatuak egiten ditugunean –elkartzen baikara– ez dira baiespen hau azaltzeko gauza.

Jendaurrean esaten dute “konfrontazio soziala baztertu” egin behar dela. Zeinetaz ari dira? Ahulak boteretsuaren aurka egiten duenaz? Zilegi den defentsarako antolatzen dugunaz? Inoiz eskubide laboral eta sozialetan pairatu dugun erasorik latzena datorrenean, sindikalismoari bandera zuria altxa dezala eskatzea, besterik ez zaie bururatzen. A zer desoreka!

Jarrera hori disidentzia sozialari estigma ezartzeko erabakiaren ondorio da. Eta garaiotan disidentzia soziala oso garrantzitsua da; aire garbia dakar.

Zer nahi dute? Erreferentzia sozial alternatiboak desagertzea.

Lehendakariak esaten du Elkarrizketa Sozialeko mahai bat eratuko duela “euskal eredu” bat defenditzeko. Galdera batzuk datozkigu burura: Zer da “euskal eredu” delako hori? Lege espainiarrak aplikatzea? Erreforma guztiak ezartzea? Zer nolako mahaia da hori, zeinetan esertzen zarenerako gai guztiak patronalaren mesedetan erabakita dauden?

Hala da. Argazkia egiteko eseri orduko guztia erabakita dago mahaitik kanpo gobernuen eta patronalaren artean. Aurrekontu-diziplina, erreforma laborala, erreforma fiskala, Kutxabank pribatizatzea, gizarte-prestazioak murriztea... Parte hartuz gero, ontzat ematen duzu zure eginkizuna ezdeusa dela, guztia babesten duzula eta horren truke ordaintzen dizutela.

Horixe da politika erreala. Hori, gehi propaganda itzela. Gobernuek eta patronalak horri “elkarrizketa soziala” deitzea nahi dute. Espainiar ereduia Euskal Autonomia Erkidegora hedatu nahi dute, Nafarroan indarrean denaren antzekoa. Badakite zenbateraino diren CCOO eta UGT finantzazio-iturri publikoen menpeko, eta hori da elkarrizketa sozialeko mahaiak biltzeko arrazoi bakarra.

ELAk Urkulluren gobernuari eskaini dio, bere garaian Lopezi bezala, elkarren intereseko izan daitekeen zenbait gairi heltzea, esaterako, prestakuntza eta lan-osasuna. Gobernuak gastu egokia egin nahi badu, hortik has daiteke. Gakoa litzateke Hobetuzen eta Osalanen hasierako sistemara itzultzea; gero hura erabaki unilateralez aldatu zuten, berton Andaluziako sistema bera ezartzeko; prestakuntza Confebask, CCOO eta UGT finantzatzeko tresna bilakatzea zen kontua. Prestakuntzako gastua taxuz egin nahi badute gurekin hitz egin dezakete.

ELAk gogora ekarri nahi du HOBETUZ eta OSALANDik atera egin ginela (LABekin batera) Eusko Jaurlaritzak erabaki zuenean EAEn Espainiako sistema bera aplikatuko zela. CCOO, UGT eta CONFEBASK pozarren zeuden. Guk ez daukagu sistema perbertso honekin zerikusirik, non, Nafarroako Kontuen Ganberak maiz salatu izan duen moduan, sosak nola banatu erabakitzen duten erakunde berdinek jasotzen duten diru hori.

Gogorra da Jaurlaritzari entzutea sigla kopurua lehenetsiko dutela, ordezkaritza gainetik. Oso gogorra. Zer legitimitate lortu nahi dute estatuari autogobernuaren aldeko apustuan irabazteko? ELAk berriro eskatzen du erakundeek errespetatu ditzatela esparru sindikalean joko-arau demokratikoak.

Rajoyk badaki CCOO eta UGT finantzazio publikoari kateatuta bizi direla. Barcinak ere bai. Gure zalantza da Urkullu jaunaren gobernuak hau jakinik bilatzen ote duen CCOOen eta UGTren babesa elkarrizketa sozialerako. Lehendakariari galdera bat egin nahi diogu: Hemen ere gauza bera egin nahi al du?

Eusko Jaurlaritzak gaur arte Lan-Harreman eta Babes Sozialeko Euskal Esparrua husteko estrategian parte hartu izan du. Ez dago “euskal eredu”rik, ez “euskal esparru”rik, baldin eta espainiar legea aplikatzen bada. Euskal esparruan ez dute sinesten, ez Jaurlaritzak, ez Confebaskek. Oso pozik daude “marca España” delakoarekin; hots, prekarietate laboral eta sozialarekin. Izan ere, ondo baitatorkie.

Elkarrizketa soziala –ELAk argi esan behar du– mugimendu sindikalarentzako kaiola bat da. ELAk ez du parte hartuko, azkenean mahaia eratzen bada ere.

6.- ANTOLAKUNTZA, LEHENTASUNA. Sindikatuari bai. Autonomia sindikalari bai. Afiliazioari bai. Militantziari bai.

Sindikatuok geure buruari ez genioke tranparik egin beharko. Jokoan dagoenak garrantzi handiegia baitu.

Lan-harremanean “nolabaiteko babesa” izatek –azken urteetan oso ahulduta bazegoen ere– boterea gailentzen den harreman batera igaro gara. Halere, ezin da jarraitu dena bere horretan balego bezala.

ELAk lehentasuna ematen dio indar-erlazioa lantzeari, esparruen eztabaida faltsutik harago; areago, erreformaren edukia aztertu eta gero, eta ikusirik toki askotan hitzarmenak ez direla betetzen.

Sindikatuok bi aukera besterik ez daukagu:

1.- Erabilgarri izateko itxura egitea, patronalaren asmoei babesa emanaz. Hori da CEOErekin sinatutako Negoziazio Kolektiboko Akordioen (ANC) eta Lanbidearteko Akordioen mamia.

2.- Enpresetan gertatzen den kalte laborala aintzat hartu, horri aurre egiteko, eta antolakuntzari lehentasuna emanez. Hau ez da inola ere ezkutatu behar. Gure jendeari, gure klaseari, dei egin behar diogu antola dadin. Antolakuntzaren indarra besterik ez daukagu. ELAk badaki hau ez dela erraza, baina ziur gaude geratzen zaigun bide bakarra dela, eraginik gabeko zerbitu bihurtu nahi ez badugu behintzat.

ELAk aitortzen du helburu hori iristeko eragozpenik handiena aliantzen ahulezia dugula. Behar ditugu; nahi ditugu. Baina ez dira posible lehentasuna esku hartze sindikaleko ereduaren lehiaz bada. Bestalde, lan sindikal eta sozial alternatiboa garatzeko aliantza sendoak behar ditugu, baina langile-klase gisa ditugun helburuek ez dute inongo menpekotasunik ametitzen gobernu, patronal nahiz alderdi politikoekiko.

ELA oztopo bat da soldaten eta gizarte-kohesioaren gainbehera gerta dadin, eta hala izaten jarraitu nahi du. Lortuko dugu antolakuntza lana gure zereginen ardatz bihurtuz gero. Oztopo gara, antolatuta gauden heinean.

Beraz, berriz esango dugu: ELAren moduko sindikatu batentzat, zeinak bere autonomia politikoa zorrotz gorde nahi baitu, ezerk ez dauka afiliazioak eta militantziak baino esanahi politiko handiagorik. Horretara behartzen gaitu egungo egoerak: autonomia sindikalaren aldarrikapena inoiz baino ozenago egitera, gure klasearen interesak defenditzeko.

Itxaropena kendu nahi digute, baina ez dute lortuko.

Bilbo, 2014ko maiatzaren 1